



DINAMIK(TT)AK'09

sormen auzolandegia

Udako ekintza hau sorkuntzaren arlo batzuetan eta besteetan ikasten jarraitu nahi duten gazteei zuzendurik dago, sormena irudikapen plastikorako teknika sorta bat baino gehiago errealitatean eta gizartean esku hartzeko tresna dela ulertarazteko xedea du.

- Lan eremu bat ARTIUMen (Vitoria-Gasteiz), EAEko 17 eta 19 urte bitarteko gazteei zuzendua.
- Eusko Jaurlaritzaren Nazioarteko Udako Lan Eremuen (Auzolandegiak) Programaren barruan.
- ARTIUMeko Museo Esperientzien Laborategiaren (MEL) testuinguruan sartutako ekintza esperimentalak, parte hartzaileen ikuspuntutik eta esperientziatik abiatuta museoaren inguruan gogoeta egiteko.
- Hamar parte hartzaile eta zazpi kultur ekintzaile gonbidatu elkarrekin lanean.
- Artearen eta sormen aplikatuaren inguruko heziketa-aisialdiko esperientzia.
- Batxilergoaren eta unibertsitatearen edota beste hezkuntza esparru batzuen arteko zubia.
- Etengabeko jarduerako hamabi egun, 2009ko uztailaren 13tik 14ra.

<http://www.dinamikttak.com>



DINAMIK(TT)AK 2006, 2007 eta 2008

1.- SARRERA

DINAMIK(TT)AK'09 batxilergo artistiko edo antzekoen azken urtean dauden eta hedatuki sormenarekin loturiko ikasketak (arte ederrak, arkitektura, filosofia, diseinua, publizitatea, moda, zinema, komunikazioa, pedagogia...) egiteko asmoa duten ikasleei (17-19 urte bitartekoak) zuzenduriko lan eremu bat da.

Hamabi egunez, **2009ko uztailaren 13tik 24ra**, **DINAMIK(TT)AK**en laugarren ekinaldi hau **ARTIUM** (Vitoria-Gasteiz) birpentsatzeko helburua duen ekintza esperimantal **praktiko-didaktiko-ludiko** gisa taxutuko da. Horretarako planteamendu berriak, gonbidatuak eta EAEko batxilergoko hamar ikasle elkartuko dira. **DINAMIK(TT)AK'09** zentro honek abiarazi duen *Museo Esperientzien Laborategiaren (MEL)* parte da.

Lan eremu honen helburu nagusia **institutuaren eta ondoko sorkuntzarekin loturiko ikasketen artean "zubi" bat luzatzea da**, parte hartzaileei sorkuntzaren arloan jarduteko aukera emanez, eta sorkuntza ekintzarako, parte hartzeko eta gizartea irudikatu eta aldatzeko dela ulertarazteko, irudikapen plastikorako teknika batzuen eta besteen erabileran trebetasun handiagoa edo txikiagoa izatearekin loturiko betekizun estetiko bat baino gehiago. Lan eremu hau **sorkuntza garaikidearen eta sormen aplikatuaren munduan** sartzeko interesa duten **gazteentzako elkartzeko eta gogoeta egiteko esparru berri bat** izatea nahi dugu.

Hamar nerabe eta bi monitore beren esperientziak eta lan prozesuak ezagutaraztera eta parte hartzaileekin proiektuak garatzera etorriko diren sormenaren zazpi profesionalekin batera egongo dira **24 orduz**. Esperientzia hau zertan datzan ulertzeko onena aurreko ekinaldien laburpena erakusten duten bideoak ikustea da:

<http://www.dinamikttak.com/dinamik09/aurrekoak-antiores/>

DINAMIK(TT)AKen ekinaldi honetarako, Vitoria-Gasteizen egingo den lehena, **bertako kultur testuinguru garaikidea**, une interesgarri eta itxaropentsua bizitzen ari baita, **ezagutzeko eta horrekin lan egiteko jarduerak** programatu dira.

Gainera, lan eremuak parte hartzaile guztien artean egindako blog bat izango du, elkarleneko hamabi egunetan gertatuko den guztiaren eguneroko kronika izango dena. Bloga ikusteko: www.dinamikttak.com

2.- HELBURUAK

Hona, laburki, **DINAMIK(TT)AK'09**-ren helburuak:

- **Etorkizuneko profesionalengan sormena "lehengai" gisa lantzea eta nerabeei gizartean lan egiteko lanabes gisa nola erabil daitekeen ikusaraztea.**
- **Adar batzuen eta besteen arteko elkarlana, multimedien sorkuntza eta kultur aniztasuna bultzatzea.**
- **Elkarrekin bizitzearen bidez etorkizunean lanbidez sorkuntzaren munduan lan egin dezaketen pertsonen artean "txerazko" loturak eta sinergiak sorraraztea.**
- **Analisirako gaitasuna eta zentzu kritikoa bultzatzea.**
- **Parte hartzaileen esperientziatik eta ikuspuntutik abiatuta ARTIUM birpentsatu eta birdefinitzea.**
- **Batxilergoaren eta Unibertsitatearen, edota beste hezkuntza esparru batzuen, arteko zubia izatea.**



3.- JARDUERAK

DINAMIK(TT)AK'09-n prozesuei eta elkarbizitzari emango zaie lehentasuna emaitza zehatzak lortzearen aurretik.

Jarduera programak hiru lantegi nagusi, hiru ekintza osagarri, jendaurreko aurkezpen bat eta tokiko testuingurua ezagutu eta harekin harremanetan jartzeko bisitaldiak biltzen ditu:

- **Reporter@s Móviles:** herritar-albistaria, blogosfera eta internet 2.0 kontzeptuetatik abiatuz garatutako *moblogging* lantegia. IKTak (informazio eta komunikazioko teknologia berriak) norbanakoek beren edukiak sortu eta partekatu ahal izateko parte hartzeko bitarteko gisa esploratzen dituen ekintza. **María Ptqk** kultura digitalaren asaldatzailea eta "bloggari" amorratua izango da buru (<http://ptqkblogzine.blogspot.com/>). Lantegi honekin loturiko ekintzak lan eremuak iraungo duen denbora osoan burutuko dira. Ekintza horien emaitzarekin parte-hartzaileen kronika pertsonala osatuko da, *DINAMIK(TT)AK'09*. www.dinamikttak.com bloga elikatuz joango baitira
- **Zer da Museoaren kontu hori?:** Gazteen ikuspegitik eta esperientziatik abiatuta, eta jarrera analitikoari eta kritikari eutsiz museoa berriz pentsatzeko prestatu den lantegia. **FAQ** arkitekto taldea izango da lantegiaren koordinatzailea. Hauek, gainera, **jende guztiari zabalik egongo den hitzaldi batean** aurkeztuko dituzte beren ikerketak eta parte hartzeko esku-hartze proiektuak **uztailaren 16an, 18:30ean ARTIUMen emanaldi aretoan.** <http://faaggranada.blogspot.com>
- **Zertan ari naiz ni hemen?:** **Laurita Siles** artista nomadak zuzendutako lantegia. Museotik abiatuta eta agertoki hori buruan dela, esku-hartze bat egingo da hiriko kaleetan zehar herritarrei sormenak, irudimenak eta arteak beren eguneroko bizitzan duen eginkizunaren inguruan pentsarazteko. www.lauritasiles.com
- **Gau bat Museoan III.** Arturo/Fito Rodríguezek bilduma, erakusketa edota arte publikoa kontzeptuei beste era batera begiratzera gonbidatuko ditu parte hartzaileak, oso modu ezohiko eta iradokitzailean: gaua museoko aretoetako batean igaroz. www.hilosrojos.blogspot.com
- **Nola egiten da Kinder arrautza?** Komunikazioa, diseinua eta marketinga zalantzan jarriko dira publizitatearen aurkako ekintza honetan, Iñaki Marquínez gasteiztar diseinatzailearen eskutik. www.creatta.net
- **Ez gehiago pentsatu, ZIS ZAS!** Yogurinha Borovak estekabeko ekintza sorta bat eginaraziko dio taldearen museoaren barruan, eta horien bidez zenbait gai landuko ditu, esate baterako, nortasuna, jarrera edota eszenaratzea..., museoko bisitariekin eta langileekin lan eginez.
- **Vitoria-Gasteiz (berriro) ezagutzea:** eguneroko ekintza sorta bat bertako sorkuntzaren testuingurua eta ekimenak ezagutzeko. Hirian zeharko ibilaldiak, hitzaldiak, lantegien bisitaldiak, probasaio aretoak, eta abar egingo dira zenbait eragileren eskutik (**Iñaki Larrimbe, Dorleta Mtz. De Aramayona, Asamblea Amarika...**).
- **Elkarbizitzako eta ingurua ezagutzeko jarduerak:** zenbait txango egingo dira Bilbora garapen eredu den hiri baten alderdi batzuk eta besteak eta bertan bizi diren eta lan egiten duten sorkuntza eragileak ezagutzeko (-Anti Liburudenda, AMASTÉ, Garabat, SC Gallery, Espacio Abisal eta la Hacería); hiriko jardueretan parte hartuko da (esate baterako, Jazz jaialdian); gaueko zine-kluba; txangoak, sesiones de playa (Garaio)...



4. ZEINTZUK EGITEN DUGU DINAMIK(TT)AK'09

IA 18 taldeak, **Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte-Ekintza Sailak** eta **ARTIUM, Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoak** elkarrekin antolatu dute **DINAMIK(TT)AK'09**.

IA 18 gizarte zibilaren parte-hartzea oinarri harturik kultur aniztasuna sustatzen duen elkarte da. **IA 18** taldeak kultur ekintzako ekimen ugari garatzen ditu, eta horien bidez nerabeei hitza ematen ahalegintzen da, balioko herritar diren aldetik bizi diren mundua definitzera gonbidatuz: iruditeria, balioak, interesak, kezak, eta abar. (www.ia18.net)

DINAMIK(TT)AK'09 egiteko **IA 18-k AMASTÉ**ren laguntza izango du. Ideien bulego honen espezialitatea gizartearen berrikuntza, gazteria, kultura, ekintzailtza, media direlakoetan alfabetatzea, lurraldea garatzea eta abarretan, irudimena, gogoeta eta zentzu kritikoa sustatuko duten prozesuak eta bitartekaritzako gailuak taxutzea da. (www.amaste.com)

5. ARGIBIDE GEHIAGO

Argibide gehiago, prentsako materiala, hitzordua finkatu edota **DINAMIK(TT)AK'09**ri edo honen kideei elkarriketa egin nahi izanez gero, jar zaitez harremanetan ondokoekin:

Txelu Balboa / txelube@amaste.com / 656 737 445
Idoia Azkorra / idoia@amaste.com / 647 450 171

CASI TENGO 18

Aretxaga, 10
48003 Bilbao
(+34) 946 053 468
info@casitengo18.com
www.casitengo18.com

Prentsa idatzirako eta ikus-entzunezko materiala uztailaren 15etik aurrera egongo da eskura *online* ondoko gunean:

<http://www.dinamiktak.com/dinamik09/prentsa-prensa/>